


KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA


EAEko familien konfiantza balio positibotan finkatu da

Familién konfiantza indizea




Laboral kutxak familién konfiantza indizearen datuak, 2018ko lehen hiruhilekoari dagozkionak, argitaratu ditu. Adierazle horren arabera, 2017ko bigarren hiruhilekoan hasi zen konfiantza susperraldiak finkatzeko prozesuari jarraipena eman dio. Lau urtez lehenengo aldiz, urte bateko lehen hiruhileko batean datu positiboa lortu da. Kontuan hartu behar da normalki, eta serieak duen urtarokotasunaren ondorioz, lehen hiruhilekoko datua ez dela urteko onena izaten. Beraz, 2018ko lehen hiruhilekoko emaitza aurreko urteetako lehen hiruhilekoetako datuekin alderatzen bada, hobekuntza esanguratsua da. Zehazkiago, eta adierazle horren osagaiak aztertuz, ikuspegi baikorragoa hautematen da ekonomia orokorraz norberaren familiaren ekonomiaz baino.


Ekonomia orokorra




Familién ekonomia



Langabeziaren bilakaera



Aurrezteko ahalmena



2018ko lehen hiruhilekoan nabarmendu behar den beste ezaugarri bat EAEko familiek langabeziaren bilakaeraz duten ikuspegi baikorra da, osagai horrek igurikimen onenak jaso dituelako. Beste aldetik, aurrezteko ahalmenaz dauden igurikimenak oraindik eremu negatiboan geratu dira. Oro har, gazteak (25 eta 39 urte bitartean daudenak) dira baikorrenak. Aitzitik, 65 urtetik gorakoak dira, argi eta garbi, ezkorrenak. Era berean, emaitzak positiboagoak dira lana duten pertsonen artean eta errenta altuenak jasotzen dituztenen artean. Gaur eguneko unea egokia ote den erosketak egiteko baloratzeko orduan, atzerapen txiki bat gertatu da 2018ko hastapenetan.

Inguruneko herrialdeekin alderatuta, diferentzia handiak hautematen dira Europako kontsumitzaileen artean. Alemaniako eta Herbeheretako familiak Europako batez bestekoa baino baikorragoa da. Ezkorrenen artean, frantziarrak eta italiarrak daude. EAEko familien konfiantza maila Estatuko eta Euroguneko batez besteko familien antzekoa da.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2016	2017	2016		2017				2018
			III	IV	I	II	III	IV	
EUSKADI	-5	1	-5	-3	-3	5	0,4	1	1
Eurogunea	-7	-2	-5	-6	-5	-3	-1	0	1
Europar Batasuna	-6	-3	-7	-6	-5	-3	-2	-1	0
Frantzia	-14	-6	-14	-13	-9	-5	-5	-6	-6
Alemania	-4	3	-3	-2	-1	4	4	6	7
Erresuma Batua	-3	-6	-6	-5	-5	-6	-6	-6	-4
Italia	-9	-12	-12	-11	-14	-16	-12	-7	-6
Espainia	-4	-1	-6	-4	-3	2	0	-2	1
Herbehereak	5	16	6	12	16	15	17	18	19
Portugal	-12	0	-13	-8	-5	1	2	3	1

(*) 2018ko lehenengo hiruhilekoa: urtarril-martxo EAERentzat eta urtarril-otsaila gainontzeko herrialdeentzat..
Iturria: Laboral kutxa eta Europar Batzordea.